



SORALUZETKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

SORALUZETKO UDALAREN ETA PIL-PILEAN EUSKALTZALEEN ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, 2024 ETA 2025 URTEETAN ELKARTEA "EUSKARALDIA" EKIMENA KUDEATZETKO LANEZ ARDURATU DADIN.

Soraluzen bi mila eta hogeita lauko maiatzaren 27an

BILDURIK

Soraluzeko Udaleko Alkatea, Unai Larreategi Azurmendi eta bestetik, Arianne Unamuno Loidi, Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteko lehendakaria.

ADIERAZI DUTE

1.- Euskaraldia hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da, Euskal Herri osoan antolatu izan dena eta 2025ean ere egingo dena.

2.- Sorluzeoko Udaleko Hizkuntza Politikaren Zerbitzuak eta Pil-Pilean Euskaltzaleen Elkarteak ekimenarekin bat egiten jarraitzea erabaki dute eta lankidetzan jardungo dute herri mailako ekimenaren motore moduan.

3.- Ekimenaren laugarren edizio hau 2025 urtean gauzatuko da, ariketa soziala 2025eko maiatzaren 15etik 25era bitartean izango delarik.

4.-Ondorengo hauek dira ekimenaren laugarren edizioaren helburu nagusiak:

- Aurreko edizioetan herritarrek modu kolektiboan hizkuntza-ohiturak aldatzeko irekitako bideari jarraipena eta bultzada ematea.
- Mota guztietako entitateek euskaraz aritzea ahalbidetu eta babesteko erabaki berriak hartu eta urrats esanguratsuak ematea.
- Euskaraldiko herri batzordeak indartzea lankidetzan oinarriturik; hanka instituzionalaren implikazioa bermatuta eta hanka sozialaren autonomia zainduta.
- Ahobizi eta belarriprest praktikak errotu eta euskarari buruzko arau sozial berriak gizaratean txertatzen jarraitzea.

5.- Herritar eta entitateak aktibatzea hilabeteetako lana izanik, ekimenaren sustatzaileek oso gomendagarritzat jotzen dute dinamizatzaile bat liberatzea. Hori horrela, Sorluzeoko Udalak eta Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak dinamizatzaile profesionala jarriko dute ekimenaren kudeaketaz arduratuta dadin. Pertsona honen batz besteko lan-jarduna egunean bi ordukoa izango da, 2024ko ekainetik 2025eko maiatzera.

6.- Dinamizatzailearen kontratazioaz eta koordinazioaz Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak arduratuko da, Udala izango delarik kontratazioetik eratorritako gastuez arduratuko dena, elkarteari emango dion 10.500 euroko diru-laguntzaren bidez.

7.- Dirulaguntza hau bi zatitan ordainduko dio Udalak elkarteari, 6.360 euro 2024. urteko ekainaren 1etik abenduaren 31ra arteko lanagatik, 2024ko aurrekontuetatik; eta 4.140 euro 2025. urteko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra arteko lanagatik, 2025. urteko aurrekontuetatik.



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Eta horrela jasota uzteko eta euren adostasuna agertzeko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetu dute bi parteek.



Unai Larreategi Azurmendi
Soraluzeko Udaleko Alkatea

Arianne Unamuno Loidi
Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteko
Lehendakaria